



## GOBERNU BATZAR IREKIA

2021.11.23

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Xabier Balerdi Tolosa**

**Begoña Tolosa Mendia**

**Nerea Letamendia Beloso**

**Patxi Amantegi Zubiria**

**Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko azaroaren hogeita hiruan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da. Tokiko Gobernu Batzar hau publikoa da, Osoko Bilkurak eskuordetutako ahalmenez baliatuta jardungo duelako. Deialdiaren oinarria hau izan da: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeen buruzkoa (30. artikulua).

Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gaitzerrenda aztertzeko:

**Idazkari akzidentala:**

**Karmele Contreras Goikoetxea**

- **Uzturre Asistentzia Guneak eskainiko duen Adinekoen Eguneko Arretarako zerbitzuaren prezioa onartzea.**

**Kontuhartzaile akzidentala:**

**Paulino Alonso Eraso**

**- UZTURRE ASISTENTZIA GUNEAK ESKAINIKO DUEN ADINEKOEN EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUAREN PREZIOA ONARTZEA.**

1. Tolosako Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 6an erabaki zuen, besteak beste, Tolosako Alondegiko plazan zentro gerontologikoa eta aparkalekua, eguneko zentroa eta hirugarren adinekoentzako apartamentututelatutako egiteko eta ustiatzeko emakidaren kontratuaren aldaketa, adineko pertsonentzako eguneko arretarako zerbitzua eskaini ahal izateko.

*“LEHENA.- Onartzea Tolosako Alondegiko plazan zentro gerontologikoa eta aparkalekua, eguneko zentroa eta hirugarren adinekoentzako apartamentu tutelatuak egiteko eta ustiatzeko emakidaren kontratuaren aldaketa, adineko pertsonentzako eguneko arretarako zerbitzua eskaini ahal izateko.*

*BIGARRENA.-Onartzea, aurrekoaren ondorioz, emakida-kontratuan txertatzea zerbitzu berria xedatzen duen Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua. Hori guztia, Gizarte Zerbitzuetako Saileko arduradunak 2021eko apirilaren 27an emakida-kontratu aldatzeko*



*egindako proposamenean jasotakoaren arabera, zeina proposamen honen 4. aurrekarian eta IV. Puntuari jasotzen den.*

*HIRUGARRENA.- Onartzea kontratua izenpetu aurretik, Udalak onartu beharko dituela erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak, emakidadunak proposatuta. Tarifa horietatik eratorritako diru-sarrerak emakidadunak jasoko ditu eta Udalak hari ordaindu beharreko prezioetik deskontatuko dira. Horretarako, hilabetero modalitate bakoitzeko erabiltzaileen arabera jaulkiko du emakidadunak zerbitzuaren faktura eta diru-sarreraren zenbatekoa deskontatuko du.*

*LAUGARRENA.- Emakidadunari aldaketaren berri ematea eta errekeritzea gehienez 15 eguneko epean kontratuaren luzapena formalizatzeraz bertaratu dadin.*

*BOSGARRENA.- Aldaketaren formalizazio iragarkia Euskadiko Kontratatuzailearen Profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. SEIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdunari, Ogasun eta Administrazio Finantza Sailari, Gizarte Zerbitzuetako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari. “*

2. Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren departamentu buruak ondorengo proposamena aurkeztu du erabiltzaileek ordaindu behar dituzten tarifen inguruan:

- A Modalitatea: SAIOAK EGUNERO ---> 0,25€ saioko (gehienez 10 € hilean)
- B Modalitatea: ASTEAN BI SAIO ---> 0,75 € saioko (gehienez 6 € hilean)
- C Modalitatea: ASTEAN SAIO BAT ---> 1 € saioko (gehienez 4 € hilean)

3. Prezio hauekin udalak ondorengo kostua izango lukeela aurreikusi da:

Zerbitzuak udal aurrekontuerengan izango duen eragina kalkulatzeko, ondoko estimazioa landu da, beti ere taldeen osararako gutxienezko kopurua urte osoan zehar okupatutako egoera balizko erreferentziatzat hartuta:

A modalitatea, saioak egunero:

Urteko kostua: 32.500€

Onuradunengandik gehienez jasoko duen ekarpena: 1.200€ (10 onuradun, bakoitzak hileko 10€, urte osoko zerbitzua)

Udalak diruz lagundu beharko duen kopurua: 31.300€

B modalitatea, saioak astean bitan:

Urteko kostua: 13.520€

Onuradunengandik gehienez jasoko duen ekarpena: 720€ (10 onuradun, bakoitzak hileko 6€, urte osoko zerbitzua).

Udalak diruz lagundu beharko duen kopurua: 12.800€

C modalitatea, saioak egunero:

Urteko kostua: 7.800€

Onuradunengandik gehienez jasoko duen ekarpena: 380€ (8 onuradun, bakoitzak hileko 4€, urte osoko zerbitzua).

Udalak diruz lagundu beharko duen kopurua: 7.420€



4. Gizarte zerbitzuei zerbitzuaren interesa justifikatzeko txostena eskatu zaei eta azaldu dute:

*"1- **Interes Sozialeko zerbitzua da**, estrategikoki Udalaren betebeharrak eta erantzunkizun nagusi bati erantzuteko datorrena; hain zuzen ere, mendekotasun egoeren prebentzioa eta artapenari dagokionean. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arautegian zehazten baita mendekotasunaren aurreko egoeran edota mendekotasun arineko egoeretan Udal Administrazioa (oinarrizko gizarte zerbitzuen sarea) dela esku hartu behar duena. Eta zerbitzuaren onurak Tolosako gizarte osoarengan izango duelako eragina.*

*2- **Izaera prebentiboa duen zerbitzua da**, isolamendu egoera larriak prebenitzeko eta zaugarritasun egoeren detekzio goiztiarra egiteko helburua duena. Intentsitate baxuko zerbitzua da, eta aurreikusten da zerbitzuaren harrera eta onarpena landu beharreko zerbaitek izango dela, onuradunen ezaugarriek diotelako beharren inguruko kontzientzia eskasa izatea, edota ohiko egoerak ematen duen confort egoera gainditzeko zailtasunak ohikoak izan ohi direla."*

Gai aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

**Aldeko botoak:** Begoña Tolosa Mendia, Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Beloso eta Jose Mari Villanueva Telleria.

**Abstentzioa:** Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Beraz, hori guztia kontuan izanik eta Antolakuntzako Batzorde Informatiboaren irizpena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta, Osoko Bilkurak eskuordetutako ahalmenez baliatuz,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Adinekoen Eguneko Arretarako zerbitzuagatik erabiltzaileek ordaindu beharreko ondorengo tarifa hauek:

-A Modalitatea: SAIOAK EGUNERO ---> 0,25€ saioko (gehienez 10 € hilean)

-B Modalitatea: ASTEAN BI SAIO ---> 0,75 € saioko (gehienez 6 € hilean)

-C Modalitatea: ASTEAN SAIO BAT ---> 1 € saioko (gehienez 4 € hilean)

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Uzturre Asistentzia Guneari, Ogasun eta Administrazio Finantza sailari eta Gizarte Zerbitzuetako sailari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitzat jo dute 11:30ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARI AKZIDENTALA**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021IGBA0024-2021-11-23 Gobernu batzarra publiko akta/2021-11-23